

Aiarako Udala

Ayuntamiento de Ayala

AIARAKO UDALEKO UDALBATZA OSOAK 2018ko UZTAILAREN 4an EGINIKO EZOHIKO BILKURAKO AKTA.

PRESIDENTEA:

Gentza Alamillo Udaeta jn.

ZINEGOTZIAK:

Iñigo Pinedo Vadillo jn.
José Antonio Bartolomé Pesquera jn.
Montserrat Angulo Solloa and.
Susana Martín Benavides and.
Itxaso Gorbeña Allende and.
Unai Campo Arenaza and.
Karmele Población Martínez and.
José Antonio Gorbea Alonso jn.
Marian Mendiguren Mendibil and.
Iratxe Parro Uzquiano and.

Arespalditzan, udaletxeko bilkuren aretoan, bi mila eta hemeretzi uztailaren lauan, zortziak eta hogeita hamarrek direnean, Udalbatza Osoa bildu da ezohiko bilera egiteko. Gentza Alamillo Udaeta alkate jauna da burua eta albo batean adierazitako zinegotziak bertaratu dira, behar bezala deituta, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik. Neuk, M^a del Carmen Rojo Pitillas idazkari andreak, lagundu ditut.

IDAZKARIA:

M^a. del Carmen Rojo Pitillas and.

Alkate jaunak ongi-etorria eman die osoko bilkurako guztiei, eta besterik aipatu gabe **EGUNEKO AZTERGAIEN ZERRENDAKO** gaiak bozkatu eta eztabaidatu dira:

1º.- Onestea, bidezkoa bada, 2018ko ekainaren 15ean eginiko ohiko osoko bilkuraren akta. - Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH-BILDU) hartu du hitza. Esan du ortografia-akatsen bat hauteman duela kargua hartzeko ekitaldian eman zuen erantzunean. Berehala zuzendu dira ortografia-akats horiek.

Halaber, Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH-BILDU) esan du eraketa-saioan diruzaintzako kontuen saldoen berri eman zela; aktan ez dira agertzen, baina garrantzitsua dela uste du.

2019ko ekainaren 14an, Udaleko diruzaintzaren egoera hau zen, bankuetako kontu korranteak eta Korporazioko kutxa kontuan hartuta:

- KUTXABANK: 485.664,01 €
- KUTXABANK: 497.235,15 €
- LABORAL KUTXA: 90.120,75 €
- KORPORAZIOKO KUTXA (ESKUDIRUTAN): 806,3 €

Hitzartzeak amaituta, egindako oharrak kontuan hartu dira eta aho batez erabaki dute akta onestea.

2.- Udaleko talde politikoen osaeraren berri ematea.

AINTZAT HARTU DA.- Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren, Toki erakundeen antolaketa, jarduera eta araubide juridikoaren araudiari buruzkoaren, 23. artikuluan ezarritakoaren arabera, tokiko korporazioetako kideak taldetan antolatuko dira, lan hori egin ahal izateko.

IKUSI DA.- Udaleko talde politikoak eratzeko, talde horien parte izan nahi duten zinegotziek idatzi bat izenpetu eta alkateari igorri behar diote. Horretarako, Idazkaritza Nagusian aurkeztu behar dute Udala eratzten denetik hurrengo bost egun balioduneko epean, eta hala bozeramailea nola ordezkoa izendatu behar dituzte (AJAren 24. artikulua).

AINTZAT HARTU DA.- Udal-taldeak eratzeko idatzi hauek aurkeztu direla, zinegotzi hautetsien sinadurekin:

EUZKO ALDERDI JELTZALEA-PARTIDO NACIONALISTA VASCO (EAJ-PNV) UDAL-TALDE POLITIKOA

Kideak:

- Gentza Alamillo Udaeta
- Iñigo Pinedo Vadillo
- Montse Angulo Solloa
- José Antonio Bartolomé Pesquera
- Susana Martín Benavides
- Itxaso Gorbeña Allende
- Unai Campo Arenaza

Bozeramailea: Gentza Alamillo Udaeta

Ordezkoa: Iñigo Pinedo Vadillo

EH-BILDU UDAL-TALDE POLITIKOA

Kideak:

- Karmele Población Martínez
- José Antonio Gorbea Alonso
- M^a. Ángeles Mendiguren Mendibil

Bozeramailea: Karmele Población Martínez

Ordezkoa: M^a. Ángeles Mendiguren Mendibil

AIARA BATUZ - TRABAJANDO POR LOS PUEBLOS HERRIEN ALDE LAN EGITEN UDAL-TALDE POLITIKOA

Kideak:

- Iratxe Parro Uzquiano



Aiarako Udala

Ayuntamiento de Ayala

Bozeramailea: Iratxe Parro Uzquiano

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA-BATUZ) adierazi du Euskadiko Tokiko Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen (34.5 artikulua) arabera, taldea eratzeko idatzia formalizatzeko epea Udalbatza eratu ondoren eta osoko bilkura hasi baino lehen da, udal-antolaketa eta funtzionamendua zehazteko; hau da, gaur.

Udalbatza jakitun gelditu da udal-talde politikoaren eraketaren gainean eta talde politiko horietako bozeramaile eta ordezkoen izendapenaren gainean.

3.- Alkateordeen izendapenaren berri ematea.- Udalbatzari jakinarazi zaio 2019ko uztailaren 1eko 2019/265 zenbakiko Alkatetza Dekretuaren bidez honako pertsona hauek izendatu direla alkateorde, legetan jasotako egoeretan Alkatetza ordezkatzeko:

- Lehenengo alkateordea: Iñigo Pinedo Vadillo jn.
- Bigarren alkateordea: Montse Angulo Solloa and.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

4.- Ohiko osoko bilkuren maiztasuna eta eguna onestea.- 2019ko uztailaren 1eko Alkatetzaren erabakiaren berri eman zaio Udalbatzari. Hau dio:

IKUSI DA.- Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenaren, 46.2 a) artikuluan xedatzen dena; horren arabera, gure bezalako 5.000 biztanle arteko udalerrri batean, ohiko osoko bilkurak gutxienez hiru hilero egin behar dira.

IKUSI DA.- Udal honen jarduera- eta lan-bolumena, eta baloratu dira udal-kudeaketak eskatzen dituen beharrianak.

AINZAT HARTU DA.- Gorago aipatutako guztia, bai eta apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 47.1 artikuluan xedatutakoa ere, zeinen bidez onesten den Toki Araubideari buruz indarrean dauden legezko xedapenen Testu Bategina, eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 78.1 artikulua, Toki erakundeen antolaketa, jarduera eta araubide juridikoaren araudiari buruzkoa.

Udalbatza Osoari proposatu zaio honako akordio hau onartzeko:

LEHENENGOA.- Udalbatzaren ohiko osoko bilkurak hilean behin egitea. Horretarako, hileko hirugarren osteguna hartuko da, abuztuan izan ezik; izan ere, ohiko bilkurak egiteko baliogabea da.

Ezarritako eguna baliogabea bada, aurreko egun baliodunean egingo da.

Ohiko bilkurak 19:00etan egingo dira.

Arespalditzan.-

ALKATE-UDALBURUA.- Sin: Gentza Alamillo Udaeta? .

Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH-BILDU) adierazi du arazoak dituela erantsi diren dokumentuak deskargatzeko; hori dela eta, eskatu du berari eta Gorbea zinegotzi jaunari deialdia eta dokumentuak paperean bidaltzeko.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) esan du osoko bilkuren maiztasun eta ordutegi hori irailetik aurrera aplikatuko dela.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da eta, bozketa arrunt bidez, aho batez erabaki du transkribatu den akordio-proposamena onestea, idatzitako eran.

5.- Informazio-batzordeak eta Kontuen Batzorde Berezia eratzea. 2019ko uztailaren 1eko Alkatetza-akordioaren berri eman zaio Udalbatzari. Hau dio:

IKUSI DA.- Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenaren, 20.1 c) artikulua arabera, 5.000 biztanletik gora dituzten udalerrietan (eta gutxiago dituztenetan, baldin eta udal-araudi organikoak hala xedatzen badu edo udalbatza osoak hala erabakitzen badu), autonomia-legeriak esparru horretan bestelako antolaketa-modurik aurreikusten ez badu, udalbatza osoak erabaki beharreko gaiak aztertzea, irizpena ematea edo kontsultatzea xede duten organoak egongo dira, bai eta alkatearen, Tokiko Gobernu Batzordearen eta ordezkariak dituen zinegotzien kudeaketaren jarraipena egitea xede dutenak ere. Horrek, baina, ez die kalterik eragingo udalbatza osoari dagozkion kontrol-eskumenei. Korporazioa osatzen duten talde politiko guztiek izango dute organo horietan parte hartzeko eskubidea, berauek osatzen dituzten zinegotzien bidez, udalbatza osoan duten zinegotzi-kopuruarekin proportzioan.

IKUSI DA.- Artikulu horrek berak hau xedatzen du: udalbatza osatzen duten talde politiko guztiek izango dute organo horietan parte hartzeko eskubidea, berauek osatzen dituzten zinegotzien bidez.

IKUSI DA.- Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren (Toki Erakundeen Antolamenduari, Jardunbideari eta Araubide Juridikoari buruzko Arautegia onesten duena) 123. artikuluan ezarritakoa.

IKUSI DA.- Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 124. 2 artikulua arabera, informazio-batzorde iraunkorren kopurua eta izendapena, baita Udalbatzaren agintaldian zehar jasaten duen edozein aldaketa Osoko Bilkuran hartutako akordioaren bidez erabakiko da, alkatearen edo udalburuaren proposamenari jarraikiz. Horrez gain, ahal den heinean, batzordeak bat etorriko dira kopuruan eta izendapenetan Udalaren zerbitzuak egituratzeko ezarri diren arlo nagusiekin.

AINZAT HARTU DA.- Toki erakundeen antolaketa, jarduera eta araubide juridikoaren araudiaren 125. artikulua ezartzen du informazio-batzordeen eraketa bat etorri beharko dela Udalean ordezkariak dituen talde politikoaren proportzioarekin. Hori dela eta, EAJ-PNVko lau kide, EH-BILDUKo bi kide eta AIARA BATUZ taldeko kide bat egotea proposatu da.

Aurreko guztia dela eta, Udalbatza Osoari proposatu zaio honako akordio hau onartzeko:



Aiarako Udala

Ayuntamiento de Ayala

LEHENENGOA.- Jarraian adierazten diren informazio-batzorde hauek eratzea:

- **SOZIOSANITARIOA, BERDINTASUNA, IMMIGRAZIOA ETA ADINEKO PERTSONAK**
COMISIÓN INFORMATIVA SOCIO-SANITARIA, DE IGUALDAD E INMIGRACIÓN Y PERSONAS MAYORES
- **HIRIGINTZA-OBRAK ETA ZERBITZUAK ETA INGURUMENA INFORMAZIO BATZORDEA**
COMISIÓN INFORMATIVA DE URBANISMO-OBRAS Y SERVICIOS Y MEDIO AMBIENTE.
- **HIRIGINTZA-OBRAK ETA ZERBITZUAK ETA INGURUMENA INFORMAZIO BATZORDEA**
COMISIÓN INFORMATIVA DE URBANISMO-OBRAS Y SERVICIOS Y MEDIO AMBIENTE.
- **LEHEN SEKTOREA, EKONOMIA SUSTAPENA, ENPLEGUA INFORMAZIO BATZORDEA**
COMISIÓN INFORMATIVA DE SECTOR PRIMARIO, PROMOCION ECONOMICA, EMPLEO
- **EUSKARA ETA HEZKUNTZA INFORMAZIO BATZORDEA**
COMISIÓN INFORMATIVA DE EUSKERA Y EDUCACIÓN
- **KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA INFORMAZIO BATZORDEA**
COMISIÓN INFORMATIVA DE CULTURA, DEPORTES Y JUVENTUD
- **ADMINISTRAZIO BATZARREKIKO HARREMANAK INFORMAZIO BATZORDEA**
COMISIÓN INFORMATIVA DE RELACIONES CON LAS JUNTAS ADMINISTRATIVAS
- **OGASUNA, FUNTZIO PUBLIKOA, BARNE ARAUBIDEA eta KONTUEN BEREZIA INFORMAZIO BATZORDEA**
COMISIÓN ESPECIAL DE CUENTAS Y PERMANENTE DE HACIENDA, FUNCIÓN PÚBLICA, Y REGIMEN INTERNO

BIGARRENA.- Laugarren puntuan adierazten diren informazio-batzordeetako presidentetza eskuordetzea.

HIRUGARRENA.- Informazio-batzordeek ohiko bilkurak egingo dituzte hil bakoitzeko bigarren asteartean, deialdi bakoitzean adierazitako orduan, jorrazteko gairik ez dagoenean salbu.

Adierazitako eguna jaieguna bada, aurreko egun baliodunean egingo dira.

LAUGARRENA.- Batzordeen osadera kontuan hartuta, proposamen honetan jasota ageri dena, EAJ-PNV taldeak adierazi du bere talde politikoko zein kide egongo den batzorde bakoitzean; hori osatzeko, beste bi taldeek ere kideak esleitu beharko dituzte batzordeetara:

SOZIOSANITARIOA, BERDINTASUNA, IMMIGRAZIOA ETA ADINEKO PERTSONAK
COMISIÓN INFORMATIVA SOCIO-SANITARIA, DE IGUALDAD E INMIGRACIÓN Y
PERSONAS MAYORES

Batzorde burua/Presidenta: SUSANA MARTIN
Ordezkoa/Suplente: IÑIGO PINEDO

Kideak/Vocales: MONTSE ANGULO
ITXASO GORBEÑA
GENTZA ALAMILLO

HIRIGINTZA-OBRAK ETA ZERBITZUAK ETA INGURUMENA INFORMAZIO
BATZORDEA
COMISIÓN INFORMATIVA DE URBANISMO-OBRAS Y SERVICIOS Y MEDIO
AMBIENTE.

Batzorde burua/Presidente: IÑIGO PINEDO
Ordezkoa/Suplente: UNAI CAMPO

Kideak/Vocales: MONTSE ANGULO
JOSE ANTONIO BARTOLOMÉ
GENTZA ALAMILLO

LEHEN SEKTOREA, EKONOMIA SUSTAPENA, ENPLEGUA INFORMAZIO BATZORDEA
COMISIÓN INFORMATIVA DE SECTOR PRIMARIO, PROMOCION ECONOMICA,
EMPLEO

Batzorde burua/Presidente: UNAI CAMPO
Ordezkoa/Suplente: IÑIGO PINEDO

Kideak/Vocales: MONTSE ANGULO
JOSE ANTONIO BARTOLOMÉ
GENTZA ALAMILLO

EUSKARA ETA HEZKUNTZA INFORMAZIO BATZORDEA
COMISIÓN INFORMATIVA DE EUSKERA Y EDUCACIÓN

Batzorde burua/Presidente: GENTZA ALAMILLO
Ordezkoa/Suplente: SUSANA MARTÍN

Kideak/Vocales: MONTSE ANGULO
ITXASO GORBEÑA
GENTZA ALAMILLO

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA INFORMAZIO BATZORDEA
COMISIÓN INFORMATIVA DE CULTURA, DEPORTES Y JUVENTUD



Aiarako Udala

Ayuntamiento de Ayala

Batzorde burua/Presidenta: MONTSE ANGULO
Ordezkoa/Suplente: ITXASO GORBEÑA

Kideak/Vocales: SUSANA MARTÍN
IÑIGO PINEDO
GENTZA ALAMILLO

ADMINISTRAZIO BATZARREKIKO HARREMANAK INFORMAZIO BATZORDEA COMISIÓN INFORMATIVA DE RELACIONES CON LAS JUNTAS ADMINISTRATIVAS

Batzorde burua/Presidente: JOSE ANTONIO BARTOLOMÉ
Ordezkoa/Suplente: IÑIGO PINEDO

Kideak/Vocales: UNAI CAMPO
ITXASO GORBEÑA
GENTZA ALAMILLO

OGASUNA, FUNTZIO PUBLIKOA, BARNE ARAUBIDEA eta KONTUEN BEREZIA INFORMAZIO BATZORDEA COMISIÓN ESPECIAL DE CUENTAS Y PERMANENTE DE HACIENDA, FUNCIÓN PÚBLICA, Y REGIMEN INTERNO

Batzorde burua/Presidenta: ITXASO GORBEÑA
Ordezkoa/Suplente: JOSE ANTONIO BARTOLOMÉ

Kideak/Vocales: IÑIGO PINEDO
MONTSE ANGULO
GENTZA ALAMILLO

Arespalditzan.- ALKATE-UDALBURUA.- Sin: Gentza Alamillo Udaeta”.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) hartu du hitza. Esan du batzordeak eratzeko beste eskema bat proposatu nahi duela, eta eraketa horretan gobernu-taldeak gehiengo izaten jarraituko lukeela, presidentearen kalitate-botoaren bidez. Kideak honela banatuta egongo lirateke: EAJ-PNVren hiru kide, EH-BILDUren bi kide eta AIARA BATUZen kide bat.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH-BILDU) esan du hauek beste eraketa bat pentsatu dutela; izan ere, proposamenak pertsona asko eskatzen ditu, joan den legegintzaldian baino bi gehiago, alegia. Hau proposatzen dute: EAJ-PNVko bi kide, EH-BILDUko kide bat eta AIARA BATUZeko kide bat; presidentearen kalitate-botoa izango luke.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) esan du behin baino gehiagotan leporatu zaiola Alkatetzari kalitate-botoa erabiltzea; orain, ordea, hori egiteko proposatzen ari dira. Gehitu du araudian adierazten den moduan batzordeen eraketa hauteskundeetan lortutako ordezkartzarekiko proportzionala izan behar dela; hori dela eta, bere proposamenari eutsiko dio.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH-BILDU) adierazi du hain batzorde handiak izateak kostu ekonomikoari eta lana antolatzeke moduari eragiten diola.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) adierazi du halaxe dela; proposatutako eraketak kostu handiagoa dakarkio Udalari. Haren iritziz, ez da beharrezkoa Euskara eta Hezkuntza, Kultura, Kirola eta Gazteria informazio-batzordea bitan zatitzea.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun dio batzorde hori zatitzea proposatu dela euskara-teknikariari bertan izatea errazteko eta haren lana kultura-teknikariaren lanetik bereizteko.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH-BILDU) esan du haiek ados daudela aldaketarekin; hala ere, uste dute ez dela aurrerapausorik eman euskararen arloan eta beste gai batzuekin nahastea kalterako izango dela. Gehitu du gehiengo osoarekin bultzada eman behar zaiola; dena den, hori guztien ardura da.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) esan du haien proposamena Eudelen ildo beretik doala: hiru batzorde eta nahitaezkoa egitea; hala, lana murriztuko dute.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) esan du hala dela, toki batzuetan murriztu egin dituztela. Hala ere, horretarako aurretik antolakuntza aldatzeko lan handia egin behar da. Esan du etorkizunean, epe ertainera, azter daitekeela aukera hori, baina une honetan ez daude era horretan funtzionatzeko prest.


Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) galdetu du ea posible den legegintzaldian zehar orain onartzen den antolamendu-eredua aldatzea.

Idazkari andreak erantzun du berak ez duela bizi; hala ere, Udalbatzako osoko bilkura organo beregaina da eta hainbat eskumen ditu eta, beraz, ez du uste inolako arazorik egongo litzatekeenik. Dena den, proposamen bat aurkezten bada, arreta handiagok aztertuko du.

Iñigo Pinedo Vadillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) adierazi du ez dakitela ea sinplifikatzea onena den. Gehitu du Euskara Batzordea bereizi dutela arlo horri garrantzia handiagoa emateko eta orain justu kontrakoa proposatzen ari direla.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) esan du justu kontrakoa dela eta ez duela eredu hori aipatzen bere interesekoa delako, berak ez baitauka bileretara joateko inolako arazorik. Eredu hori proposatu du azaldu ziotenean komenigarria iruditu zitzaiolako; egin behar den gauza bakarra da politikariak lan egiteko modu horretara egokitzea, arloak sortuta baitaude, baita langileak esleituta ere. Hala ere, aitortu du aldaketa handia dela. Amaitzeko, esan du arraroa izango litzatekeela guztiak ildo horretatik joatea ona izango ez balitz.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) esan du era horretako erabaki bat ezin dela hemen hartu. Aurretik lan bat egin behar da, eta beharrezkoa da aldaketa komenigarria den aztertu eta hausnartzea.



Aiarako Udala

Ayuntamiento de Ayala

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH-BILDU), esandakoa ikusita, uste du Alkatezkak gaia aztertuko duela.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) adierazi du esan zietela 2016tik aurrera batzordeak irekiak izan zitezkeela.

Alkate jaunak erantzun dio informazio-batzordeen saioak jendeari irekitzeko beharrezkoa dela gaia Udal Araudi Organiko (UAO) baten bidez arautu behar da eta bertan zehaztasunez adierazi behar dira funtzionamendu-arauak.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH-BILDU) ez du batzordeak irekitzeko arazorik ikusten, jendeak entzun ahal izan dezan; izan ere, garrantzitsua da herritarrek jakitea Udalak zer egiten duen.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) errepikatu du haien asmoa UAO bat egitea dela; bertan, gai honetaz gain, funtzionamenduari buruzko beste hainbat alderdi ere arautu ahalko dira: osoko bilkuretako parte-hartzeak...

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH-BILDU) esan du batzordeak irekitzea gauza puntuala dela; horregatik, ez du ulertzen zergatik eman behar zaion hainbeste buelta. Borondate kontua da.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) esan du parte-hartzea oso ondo dagoela, baina hori behar bezala arautu behar dela UAOn bidez. Gehitu du berak batzordeak irekiak izatea nahi duela, baina horretarako gutxieneko funtzionamendu-arau batzuk ezarri behar direla.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH-BILDU) esan du eztabaida hau antzua dela, eta galdetu du zer egingo den, eta noiz.

José Antonio Gorbea Alonso zinegotzi jaunak (EH-BILDU) hartu du hitza. Esan du legeak aukera ematen badu informazio-batzordeak irekiak izateko gehiengo oso bidez hartutako erabakiaren bitartez eta borondatea badago, erabakia orain har daitekeela, gaia luzatu gabe, nahiz eta aldi berean UAO bat prestatu.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) berriro esan du haien proposamena dela Udal Araudi Organiko (UAO) bat lantzea eta bertan informazio-batzorde irekiak aipatzea, eta erabaki horren helburua ez da prozesua luzatzea.

Hitzartzeak amaitu ondoren, proposamena onestea erabaki da, idatzitako moduan, EAJ-PNV taldearen aldeko botoekin, EH-BILDU taldearen abstentzioarekin eta AIARA-BATUZ taldearen aurkako botoarekin. Ondorioz, EH-BILDU eta AIARA-BATUZ taldeek batzordeetako kideak izendatu dituzte, eta hau izango da batzordeen osaera:

SOZIOSANITARIOA, BERDINTASUNA, IMMIGRAZIOA ETA ADINEKO PERTSONAK

I.F.K. C.I.F. P0101100F

✉ B°La Iglesia, 3 - 01476 Arespalditza (Araba) - ☎ 945399013 - 📠 945399331 - 📧 info@aiarakoudala.eus - 🌐 www.aiarakoudala.eus

COMISIÓN INFORMATIVA SOCIO-SANITARIA, DE IGUALDAD E INMIGRACIÓN Y PERSONAS MAYORES

Batzorde burua/Presidenta: SUSANA MARTIN
Ordezkoa/Suplente: IÑIGO PINEDO

Kideak/Vocales: MONTSE ANGULO
ITXASO GORBEÑA
GENTZA ALAMILLO
KARMELE POBLACIÓN
MARIAN MENDIGUREN
IRATXE PARRO

HIRIGINTZA-OBRAK ETA ZERBITZUAK ETA INGURUMENA INFORMAZIO BATZORDEA
COMISIÓN INFORMATIVA DE URBANISMO-OBRAS Y SERVICIOS Y MEDIO AMBIENTE.

Batzorde burua/Presidente: IÑIGO PINEDO
Ordezkoa/Suplente: UNAI CAMPO

Kideak/Vocales: MONTSE ANGULO
JOSE ANTONIO BARTOLOMÉ
GENTZA ALAMILLO
KARMELE POBLACIÓN
JOSÉ ANTONIO GORBEA
IRATXE PARRO

LEHEN SEKTOREA, EKONOMIA SUSTAPENA, ENPLEGUA INFORMAZIO BATZORDEA
COMISIÓN INFORMATIVA DE SECTOR PRIMARIO, PROMOCION ECONOMICA, EMPLEO


Batzorde burua/Presidente: UNAI CAMPO
Ordezkoa/Suplente: IÑIGO PINEDO

Kideak/Vocales: MONTSE ANGULO
JOSE ANTONIO BARTOLOMÉ
GENTZA ALAMILLO
JOSÉ ANTONIO GORBEA
MARIAN MENDIGUREN
IRATXE PARRO

EUSKARA ETA HEZKUNTZA INFORMAZIO BATZORDEA
COMISIÓN INFORMATIVA DE EUSKERA Y EDUCACIÓN

Batzorde burua/Presidente: GENTZA ALAMILLO
Ordezkoa/Suplente: SUSANA MARTÍN

Kideak/Vocales: MONTSE ANGULO
ITXASO GORBEÑA
GENTZA ALAMILLO



Aiarako Udala

Ayuntamiento de Ayala

KARMELE POBLACIÓN
MARIAN MENDIGUREN
IRATXE PARRO

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA INFORMAZIO BATZORDEA
COMISIÓN INFORMATIVA DE CULTURA, DEPORTES Y JUVENTUD

Batzorde burua/Presidenta: MONTSE ANGULO
Ordezkoa/Suplente: ITXASO GORBEÑA

Kideak/Vocales: SUSANA MARTÍN
IÑIGO PINEDO
GENTZA ALAMILLO
KARMELE POBLACIÓN
MARIAN MENDIGUREN
IRATXE PARRO

ADMINISTRAZIO BATZARREKIKO HARREMANAK INFORMAZIO BATZORDEA
COMISIÓN INFORMATIVA DE RELACIONES CON LAS JUNTAS ADMINISTRATIVAS

Batzorde burua/Presidente: JOSÉ ANTONIO BARTOLOMÉ
Ordezkoa/Suplente: IÑIGO PINEDO

Kideak/Vocales: UNAI CAMPO
ITXASO GORBEÑA
GENTZA ALAMILLO
JOSÉ ANTONIO GORBEA
MARIAN MENDIGUREN
IRATXE PARRO

OGASUNA, FUNTZIO PUBLIKOA, BARNE ARAUBIDEA eta KONTUEN BEREZIA
INFORMAZIO BATZORDEA
COMISIÓN ESPECIAL DE CUENTAS Y PERMANENTE DE HACIENDA, FUNCIÓN
PÚBLICA, Y REGIMEN INTERNO

Batzorde burua/Presidenta: ITXASO GORBEÑA
Ordezkoa/Suplente: JOSÉ ANTONIO BARTOLOMÉ

Kideak/Vocales: IÑIGO PINEDO
MONTSE ANGULO

GENTZA ALAMILLO
KARMELE POBLACIÓN
JOSÉ ANTONIO GORBEA
IRATXE PARRO

6.- Alkatearen dedikazio eskusiboa, zinegotzien dietak eta kalteordainak eta talde politikoen esleipenak onestea.- 2019ko uztailaren 1eko Alkatetza-akordioaren berri eman zaio Udaltzari. Hau dio:

IKUSI DA.- 1985eko urriaren 15ean Strasbourgen egindako Tokiko Autonomiari buruzko Europar Gutunaren 7. artikuluan, tokiko erantzukizunak gauzatzeko baldintzei buruzkoan, ezartzen dela baldintza horiek behar bezalako konpentsazio ekonomikoa ahalbidetu beharko dutela, agintaritza horrek eragindako gastuak ordaintzeko. Horrez gain, hala dagokionean, galdutako irabaziengatik konpentsazio finantzarioa edo egindako lanari dagokion ordainsaria jasotzea ere ahalbidetuko du, baita dagokion gizarte-estaldura ere.

IKUSI DA.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzeko Legeko (apirilaren 2ko 7/85 Legea) 75.1 artikulua. Hau dio: *“1. Toki-korporazioetako kideek ordainsariak jasoko dituzte karguak betetzeagatik, arduraldi eskusiboan badihardute; kasu horretan alta emango zaie Gizarte Segurantzako erregimen orokorrean, eta korporazioek beren gain hartuko dute enpresaren parteko kuotak ordaintzea, aurreko artikuluan xedatutakoa salbuespen dela.*

Ordainsari horien kasuan, horiek jasotzea bateraezina da administrazio publikoen eta administrazio horien menpeko ente, erakunde eta enpresen aurrekontuen konturako beste inolako ordainsariak hartzearekin; bateraezina da, halaber, beste jarduera batzuk garatzearekin ere; eta hori guztia Herri Administrazioetan jarduten duten langileen bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legearen baldintzetan”.

AINZAT HARTU DA.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzeko Legearen (apirilaren 2ko 7/85 Legea) bigarren xedapen gehigarriko 11. puntuan hau ezartzen dela: aurrekontu-egonkortasunaren helburuak betetze aldera, Espainiako Konstituzioko lehen xedapen gehigarriak, Autonomia Estatutuak, Kontzertu Ekonomikoaren Legeak eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzeko Legearen bigarren xedapen gehigarriak tokiko araudiaren eta tokiko finantzaketaren alorrean ematen dizkieten eskumen eta gaitasunak kontuan hartuta, Euskal Lurralde Historikoetako foru-erakundeek erabakiko dituzte tokiko korporazioetako kideek guztira jaso ditzaketan ordainsarien eta laguntzen gehieneko zenbatekoak, baita erakunde horietako aldi baterako langileek, tokiko korporazioen zerbitzura eta sektore publikoan lan egiten duten gainerako langileek eta gaikuntza nazionala duten funtzionarioek jaso ditzaketan gehieneko zenbatekoak ere. Zenbateko horiek zehazteko, estatuko legeriak ezarritako printzipioak eta egiturak hartuko dira kontuan.

Eskumen hori exekutatzeko, otsailaren 11ko 4/2015 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoan tokiko administrazioa arrazionalizatzeko eta jasangarri egiteko neurrien aplikazioaren berezitasun-foralari buruzkoan, hain zuzen ere 4. artikuluan, ezartzen da tokiko korporazioetako kideen, tokiko administrazioaren zerbitzura dauden langileen eta sektore publikoko langileen ordainsariak nolakoak izan behar diren.

Arabako Foru Aldundiak jakinarazi digunaren arabera, 2019ko maiatzaren 29an, Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien aretoko laugarren atalak epai bat eman zuen, Euskadiko Justizia Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Epaien aretoaren epaia (86/2016 epaia, 199/2015 errekurtsioan); bertan, aipatutako otsailaren 11ko 4/2015 Foru Araua kontestatzen da, eta Euskadiko Justizia Auzitegi Goreneko epai horren seigarren fundamentu juridikoan adierazten da 4/2015 Foru Arauko 4.1 artikulua tokiko korporazioetako kideentzat ezartzen dituen ordainsarien



Aiarako Udala

Ayuntamiento de Ayala

erregimena ez datorrela bat Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 2.11 xedapen gehigarriarekin (27/2013 Legearen bitartez txertatu zen); izan ere, arau horren arabera, Euskadiko Lurralde Historikoez zehaztuko dituzte tokiko korporazioetako kideek eta horien zerbitzura lan egiten duten langileek jaso ditzaketen ordainsarien eta bestelako laguntzen gehieneko zenbateko osoak, estatuko legeriak ezarritako printzipioak eta egiturak kontuan hartuta, hala dagokionean.

Estatuko araudiak, besteak beste, ordainsarien tarte bat ezartzen du 1.000 eta 5.000 biztanle artean dituzten udalerrietako erakundeetarako, eta beste bat 1.000 biztanle baino gutxiago dituztenentzat. 4/2015 Foru Arauak, berriz, 2.001 eta 5.000 biztanle arteko udalerrietako erakundeetarako tarte bat ezartzen du, eta beste tarte bat, berriz, 2.000 biztanle arte dituztenentzat. Horrek aldaketa bat dakarkio estatuko oinarriko araudiak ezartzen duen egiturari.

AFAk adierazi digu, uztailaren 12ko 29/1998 Legearen 72.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, xedapen edo egintza bat baliogabetzeak eragina jasaten duten pertsona guztietan izango dituela ondorioak. Gainera, xedapen orokor bat baliogabetzen duten epai irmoek ondorio orokorrak izango dituzte epaia argitaratzen den egunetik aurrera. Bestalde, xedapena baliogabetu den epe ofizial berean baliogabetutako aginduek ere ondorio orokorrak izango dituzte, eta epaia ALHAOn argitaratzen den unetik aurrera sartuko dira indarrean (oraindik ez da argitaratu).

Hori dela eta, ikusita estatuak ezarritako soldaten taula ez datorrela bat 4/2015 Foru Arauko ordainsarien koadroarekin, eta alkateak jasotzen duen zenbatekoak zertxobait gainditzen duela estatuko muga, epai hori argitaratzen den unean zenbait egokitzapen egin beharko dira, estatuko araudira egokitzeko.

IKUSI DA.- Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75.bis artikuluko 3. atalak ezartzen du ez arduraldi osorik ez partzialik ez duten toki-korporazioko kideek baino ez dituztela jasoko beren korporazioko kide anitzeko organoetako bilkuretara benetan joatearren dagozkien laguntzak, korporazioko osoko bilkurak adierazitako kopuruak.

IKUSI DA.- Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75.3 artikuluko besteak beste hau ezartzen duela: “Korporazioko osoko bilkurak diru-zuzkidura bat izendatu dezake talde politikoentzat korporazioko urteko aurrekontuen kontura; osagai bat finkoa izango da, talde guztientzat berdina, eta beste osagaia aldakorra, talde bakoitzeko kide-kopuruaren arabera, Estatuko aurrekontu orokorren legeetan orokorrean ezar daitezkeen mugen barruan; eta ezin izango dira erabili korporazioaren zerbitzura diharduten ezelango langileen lansariak ordaintzeko, ez eta ondare moduan aktibo finkoak eratzeko balio dezaketen ondasunak eskuratzeko ere. ”

IKUSI DA.- Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75.4 artikuluko hau ezartzen du: “Toki-korporazioetako kideek beren karguak betetzean benetan egindako gastuen kalte-ordainak jasoko dituzte, administrazio publikoetan orokorrean aplikatzekoak diren arauen arabera, eta haien garapenean korporazioko osoko bilkurak onartzen dituen arauen arabera hain zuzen”.

Adierazitako hori kontuan hartuta, Udalbatzako alkate-udalburuak honako erabaki hauek hartzeko proposatu du:

LEHENENGOA.- Alkate-udalburuak arduraldi eskusiboko erregimenean beteko du bere kargua, Toki Araubidearen Oinarriari buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik. Hori dela eta, 08:00etan hasiko da haren ohiko lanaldia, eta 15:00etan amaitu. Nolanahi ere, baliteke ordutegi horretatik kanpo lan batzuk egin behar izatea. Arduraldi eskusibo horretarako, alta eman behar da Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean, eta Udalak bere gain hartuko ditu dagozkion enpresa-kuoten ordainketak.

Alkate-udalburuaren kargua betetzeagatik, 3.259,09 euroko ordainsari gordina jasoko du hilean, 14 hiletan banatuta.

Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean alta emateak eta adierazitako esleipenak atzeraeragina izango dute 2019ko ekainaren 15era (izendatua ez baita aldatu), egun horretan hautatu baitzuten Aiarako Udaleko alkate-udalburu, eta egun horretan hartu baitzuen kargua. Nolanahi ere, ordainsari horren zenbatekoa Udaleko langileen hitzarmenaren baldintzen arabera eguneratuko da.

Gorago adierazi den moduan, 4/2015 Foru Araua indargabetzen duen epaia argitaratzen den unean, dagozkion minorazioak egin beharko dira, ordainsariak estatuko araudira egokitzeko.

Urteko Aurrekontua Betearazteko Arauan erregimen eta arduraldi horrekin lotutako kontuak jasoko dira, bai eta jarraian adierazitako urteko aldaketak ere.

Edonola ere, ordainsari hori jasotzea ez da bateragarria izango administrazio publikoen eta horien mendeko erakunde, organismo edo enpresen aurrekontuen kargura ordaintzen diren beste ordainsari batzuk jasotzearekin, ez eta beste jardura batzuk egitearekin ere, hori guztia Administrazio Publikoetako Langileen Bataerantzunean buruko abenduaren 26ko 53/1984 Legearekin bat etorritik.

BIGARRENA.- Alkateordeek kalte-ordaina jasoko dute legeak aurreikusten dituen kasuetan alkatea ordezkatzen duten egun bakoitzeko, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 23.3 artikuluekin bat.

Kalte-ordain horren zenbatekoa alkate jaunaren eguneko soldata gordinaren baliokidea izango da, bider ordezkapenak iraun duen egun kopurua, jaiegunak barne.

HIRUGARRENA. - Udalbatzan arduradirik (partziala zein eskusiboa) ez duten kideek zenbateko hauek jasoko dituzte kide anitzeko hainbat organotara bertaratzeagatik.

- OHIKO BILKURETARA bertaratzeagatik..... 170 euro gordin
- EZOHIKO BILKURETARA bertaratzeagatik..... 30 euro gordin
- INFORMAZIO BATZORDEETARA bertaratzeagatik
 - * Kide gisa 30 euro gordin
 - * Batzordeburu gisa 240 euro gordin

* Hilabete berean arlo bereko batzorde bat bigarren aldiz edo gehiagotan elkartzen bada, ezohikotzat joko da, eta batzordeburuak zein batzordekideek 30 euro gordinetako dietak jasoko dituzte.



Aiarako Udala

Ayuntamiento de Ayala

Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 75.bis artikuluko 3. atalak ezartzen duenaren arabera, zenbateko horiek “bilkuretara benetan bertaratzeagatik” jasoko dira; beraz, kidea ez bada bertaritzen, ez du zenbatekoa jasoko.

LAUGARRENA.- Toki Araubidearen Oinarriei buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 73.3 artikuluan xedatutakoarekin bat, eraturako udal-talde politiko bakoitzari 225 euro/hilabeteko osagai finkoko ekonomia-zuzkidura esleituko zaio, eta udal-taldeak osatzen dituzten zinegotzi bakoitzari 65 euro/hilabeteko osagai aldakorra.

Talde politikoek zuzkidura horren kontabilitatea egin beharko dute, eta Udalbatza Osoari aurkeztuko diote, hark eskatzen dienean. Edonola ere, zenbateko horiek ezingo dira erabili Udalbatzako edozein langileren ordainsariak ordaintzeko edo ondare-izaerako aktibo finkoak eratu ditzaketen ondasunak eskuratzeko.

BOSGARRENA.- Joan-etorriak, otorduak, gaualdiak eta halakoak egiteagatik emango diren dieten erregimena eta zenbatekoa berbera izango da zinegotzientzat eta langileentzat, eta zorrotz ezarriko dira dagokion hitzarmenean horri buruz jasotzen diren xedapenak.

SEIGARRENA.- Taldeei esleituko zaizkien zenbatekoak eta kide anitzeko organoetara bertaratzeagatik finkatutakoak 2019ko ekainaren 15etik aurrera sartuko dira indarrean.

ZAZPIGARRENA.- Erabaki hau Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki-taulan argitaratuko da, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen Legearen 75. artikuluko 5. atalean xedatutakoarekin bat etorritik.

Arespalditzan.- ALKATE-UDALBURUA.- Sin: Gentza Alamillo Udaeta”.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH-BILDU) alkateari galdetu dio ea bere oporrak abuztuan diren edo nahi duen data aukera dezakeen.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du beste edozein langilek bezala lana eta familia uztartu nahi dituela baina, oro har, abuztuan hartzen dituela oporrak.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) adierazi du aurreko legegintzaldiaren aldean aldatu dena legeak jasotako egoeretan alkateordeak alkatea ordezkatzegatik jasoko duen kalte-ordaina dela.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du baietz, alkateordeak alkatearen kargua hartzea dakarren kostuari erantzuteko kalte-ordain bat aurreikusi dela. Gehitu du ez dela soldata bat, baizik eta kalte-ordain bat. Hori kalkulatzeko parametro gisa alkatearen egun bakoitzeko soldata hartu da kontuan, eta gero bider ordezkapen-egunak egingo da. Helburua da ordezkapenak dakarren erantzukizun eta okupazio handiagoa konpentsatzeko kalte-ordainak ematea, ordezkoak sinatu ere egin behar baitu.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH-BILDU) erreferentzia egin dio estatuko araudiaren eta Foru Arauaren arteko desberdintasunari buruzko proposamenari, alkatearen ordainsariei dagokienez. Galdetu du ea epaia argitaratzen denean alkatearen ordainsariak aldatu egingo diren.

Alkateak erantzun du, proposamenean adierazten den moduan, epaia argitaratzen denean ez badago beste zerbait ezartzen duen Foru Araurik dagozkion minorazioak egin beharko direla. Hala ere, badaki dagoeneko Foru Arau horretan lanean ari direla eta arazoa ez direla zenbatekoak, baizik eta udalerrien biztanleriaren araberako banaketa desberdina dela estatuko oinarrizko araudian.

Hitzartzeak amaitu ondoren, , aho batez erabaki da transkribatu den akordio-proposamena onestea, idatzitako eran.

7.- Aiarako Kuadrillan Udala ordezkatzeko duten kideak izendatzea.- 2019ko uztailaren 1eko alkatetza-akordioaren berri eman zaio Udalbatzari. Hau dio:

IKUSI DA.- Kuadrillei buruzko azaroaren 20ko 63/1989 Foru Arauaren 14.2 artikulua (1989ko abenduaren 11ko 142 zenbakiko ALHAO) hau ezartzen duela:

" ...2.- Eskualde Batzarra Eskualde Batzarkideek osatzen dute, eta hauek Eskualdea osatzen duten Udalerrietako Osoko Udalbatzak bere zinegotzien artetik izendatzen dituzte, honako eskalaren arabera: a) 500 biztanletik beherako udalerriak, batzarkide bat. b) 501 eta 1.000 biztanleren arteko udalerriak, bi batzarkide. c) 1.001 eta 2.000 biztanleren arteko udalerriak, hiru batzarkide. d) 2.001 eta 5.000 biztanleren arteko udalerriak, bost batzarkide. e) 5.001 eta 10.000 biztanleren arteko udalerriak, zazpi batzarkide. f) 10.001 eta 20.000 biztanleren arteko udalerriak, bederatzi batzarkide. g) 20.000 biztanletik gorako udalerriak, hamabi batzarkide. Kuadrillei buruzko azaroaren 20ko 63/1989 Foru Arauaren 14.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, Aiarako Udalari bost batzarkide izendatzea dagokio, udalerrien biztanle kopurua kontuan hartuta (2.001 eta 5.000...).


Ondorioz, udalerrien biztanleria kontuan hartuta, bost batzarkide izendatu behar ditugu.

IKUSI DA.- Postuak alderdien, koalizioen eta federazioen eta hautesle-talde bakoitzaren artean banatzen dira talde politiko bakoitzak tokiko hauteskundeetan jasotako boto-kopuruaren arabera, Hauteskundeetarako Erregimen Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 163. artikuluan ezarritako prozedura aplikatuz.

Hauteskundeetako emaitzak kontuan hartuta, hauek izan dira Aiarako Udaleko hauteskundeetako emaitzak:

Alderdiak Koalizioak	Botoak guztira Zati 1 eginda	Zati 2 eginda	Zati 3 eginda
EAJ-PNV	873	436,5	291
EH-BILDU	401	200,5	133,66
AIARA BATUZ	235	117,5	78,33

Hau da banaketa: hiru (3) batzarkide EAJ-PNVri; batzarkide bat (1) EH-BILDUri, eta beste bat (1) AIARA BATUZi.



Aiarako Udala

Ayuntamiento de Ayala

AINTZAT HARTU DA.- Udalbatza Osoak egin behar du izendapena bi hilabeteko epean, eratu den egunetik aurrera zenbatzen hasita, eta Arabako Batzar Nagusiei jakinarazi beharko die. Udalbatza Osoak honako hau erabaki du:

LEHENENGOA.- Aiarako Eskualdeko Batzarrerako udal honi dagozkion bost batzarkideak izendatzea talde politiko bakoitzetik jasotako boto-kopuruaren arabera, Hauteskundeetarako Erregimen Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 163. artikuluan ezarritako prozedura aplikatuz. EAJ-PNVk bere izendapen-proposamena egin du; proposamen hori beste bi talde politikoetako ordezkariekin osatu beharko da:

EAJ-PNV udal-talde politikotik:

Gentza Alamillo Udaeta jn.
Iñigo Pinedo Vadillo jn.
Montse Angulo Solloa and.

BIGARRENA. - Erabaki hau Arabako Batzar Nagusiei eta Aiarako Kuadrillari jakinaraztea, horren berri izan dezaten.

Arespalditzan.-

ALKATE-UDALBURUA.- Sin: Gentza Alamillo Udaeta”.

EH-BILDU taldeak Karmele Población Martínez andrea proposatu du Kuadrillako ordezkari; **AIARA BATUZ** taldeak, berriz, Iratxe Parro Uzquiano andrea proposatu du.

Hitzartzeak amaitu ondoren, , aho batez erabaki da transkribatu den akordio-proposamena onestea, idatzitako eran. Hauek izango dira bost ordezkariak:

- EAJ-PNV udal-talde politikotik:

Gentza Alamillo Udaeta jn.
Iñigo Pinedo Vadillo jn.
Montse Angulo Solloa and.

- EH-BILDU udal-talde politikotik:

Karmele Población Martínez and.

- AIARA BATUZ udal-talde politikotik:

Iratxe Parro Uzquiano and.

8.- Gorobel Mendilerroko Antzinako Ermandadearen Batzordeko kidea izendatzea. - 2019ko uztailaren 1eko alkatetza-akordioaren berri eman zaio Udalbatzari, Hau dio:

IKUSI DA.- 2019ko maiatzaren 26ko tokiko hauteskundeak egin ondoren, berritu egin dira tokiko korporazioak, eta, ondorioz, Udal honek beste ordezkari batzuk jarri behar ditu beste erakunde eta instituzio batzuetan.

AINTZAT HARTU DA.- Aiarako Udalak ordezkari bat izendatu behar duela Gorobel Mendilerroko Antzinako Ermandadean.

Aurreko guztia dela eta, Udalbatza Osoari proposatu zaio honako akordio hau onartzeko:

LEHENENGOA.- Honako hauek izendatzea Gorobel Mendilerroko Antzinako Ermandadearen Batzordeko Udalaren batzordekide eta ordezko:

- * Batzordekidea: Unai Campo Arenaza and.
- * Ordezkoa: José Antonio Bartolomé Pesquera jn.

BIGARRENA.- Erabaki hau Gorobel Mendilerroko Antzinako Ermandadearen Batzordeari jakinaraztea, jakinaren gainean egon dadin.

Aiaran.-

ALKATE-UDALBURUA.- Sin: Gentza Alamillo Udaeta”.

Hitzartzeak amaitu ondoren, , aho batez erabaki da transkribatu den akordio-proposamena onestea, idatzitako eran.


9.- Udal-ordezkarrien izendapenen berri ematea.- 264/2019, 278/2019 eta 279/2019 zenbakiko alkatetza-dekretuen berri eman zaio Udalbatzari; horien bitartez, Zaraobe Institutuko, Etxaurren Ikastolako eta Etxaurren Haur Eskolako eskola-kontseiluetan honako udal-ordezkarri hauek izendatu dira: GENTZA ALAMILLO UDAETA eta, ordezko gisa, MONTSE ANGULO SOLLOA. Zabaia Landa Garapenerako Elkartean, berriz, GENTZA ALAMILLO UDAETA izendatu da udal-ordezkarri, eta IÑIGO PINEDO VADILLO, berriz ordezko. “Kantauriko Urkidetza” ur-partzuergoan, bestalde, GENTZA ALAMILLO UDAETA izendatu da udal-ordezkarri, eta JOSÉ ANTONIO BARTOLOMÉ PESQUERA, berriz, ordezko.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) Zaraobe Institutuko eskola-kontseilura joateko eskatu du; izan ere, jakin du ez direla joan, eta gure gazteek bertan ikasten dute.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) zehaztu du joaten direla; hala ere, azken bilera osoko bilkuraren egun berean egin zen, eta beste kasu batean arrazoi pertsonalak zirela-eta ezin izan ziren joan.

Eta jorrazteko beste gairik ez dagoenez, alkateak bilera amaitutzat eman du bederatziak eta hogeita bost minutu direnean. Eta landutakoa jasota gera dadin, akta hau eman da, Arespalditzan, bi mila eta hemeretzi uztailaren lauan. Nik, idazkari naizen honek, guztiaren fede eman dut.

O. E.:



Aiarako Udala
Ayuntamiento de Ayala

ALKATE-UDALBURUA

IDAZKARIA,

Sin.: Gentza Alamillo Udaeta

Sin.: M^a. del Carmen Rojo Pitillas and.